

AURREKONTU IREKIAK 2020 PROIEKTUAREN EGOERARI BURUZKO AZALPEN MEMORIA

Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, 2020ko aurrekontu irekien proiektua gauzatzeko hasierako egutegia aldatu behar izan da; izan ere, irailaren amaiera edo urriaren hasiera arte ez du Diputatuen Kontseiluak hartu proiektua gauzatzeko behar den zenbatekoaren zehaztapenari edo gastuen partidari buruzko erabakirik, partaidetzako aurrekontuen bidezko prozeduraren bitartez hartu beharrekoa, hain zuzen.

Hasieran aurreikusitako kronogramaren arabera, herritarrek aurkeztutako proiektuak aukeratzeko azken fasea irailean edo urrian egin behar zen, baina izandako atzerapenaren ondorioz, azken fase hori urtarrilaren amaieran burutuko da, 2020ko aurrekontuak behin betikoz onartu ondoren.

Beraz, irailean, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 1.200.000 euro xedatzea/bideratzea 2020ko aurrekontu irekietara, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusian xedatuko den partidaren kargura.

Proiektuaren bilakaerari dagokionez, adierazi behar da 8. fasearen aurreko fasean dagoela gaur egun. Fase horretan, hain zuzen, iragazki teknikoa gainditu duten herritarren proposamenak proiektu zehatz bihurtzen dira eta, gero, 9. fasean, herritarrek behin betikoak aukeratuko dituzte.

Beraz, une honetan proiektua 8. fasean sartzeaz dago, eta burutzeko geldituko dira 9, 10 eta 11. faseak.

Argibide gehiago izateko, proiektua gauzatzeko faseen kronograma eguneratua eransten dugu.

Joseba Muxika

Herritarren Partaidetzako zuzendaria

Jarduerak	Datak	Hilabeteak	2019												2020																		
			Urria			Azaroa			Abendua						Urtarrila						Otsaila												
			Asteak	42. astea	43. astea	44. astea	45. astea	46. astea	47. astea	48. astea	49. astea	50. astea	51. astea	52. astea	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	5. astea	6. astea													
1	Proiektuan identifikazioa eta definizioa	Urriak 15 Azaroak 10	27	[Blue bar]																													
2	Proiektuen eta hautaketa irizpideen behin betiko hautaketa (Bilerak Grupo Motor eta DAB enpresekin)	Azaroak 15 Azaroak 30	16	[Blue bar]																													
3	Liburuxken eta materialen diseinua	Azaroak 18 Abenduak 12	25	[Blue bar]																													
4	Inprimategia	Abenduak 12 Urtarrilak 3	23	[Blue bar]																													
5	Komunikazio estrategia	Urtarrilak 7 Otsailak 7	32	[Blue bar]																													

Jarduerak	Datak	Hilabeteak	2020																					
			Urtarrila							Otsaila							Martxoak							
			Asteak	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	5. astea	6. astea	7. astea	8. astea	9. astea	10. astea	11. astea	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	5. astea	6. astea	7. astea	8. astea	9. astea	
6	Liburuxkak etxez etxe banatzea	Urtarrilaren 7tik 20ra	14	[Blue bar]																				
7	Herritarrek proiektuak aukeratzea	Urtarrilak 7 Otsailak 7	18	[Blue bar]																				
8	Azken emaitzak lortzea	Otsailak 10 Otsailak 28	19	[Blue bar]																				
9	Partaidetza prozesua ebaluatzea	Martxoak 2 Martxoak 14	13	[Blue bar]																				